

## ANALISIA



## Bermeo Tuna World Capital: euskalenglish izurritearen azkena



Axier Lopez  
@axierL

Gorbeia Central Park, Goierri Valley, Enkarterri Fest Gourmet Festival, Itzulia Basque Country, San Sebastian International Film Festival (SSIFF), Basque Culinary Center, Elgoibarko Digital Grinding Innovation Hub, Urdaibai Bird Center, Bilbao Port, San Sebastian Region, Gasteiz Green Capital, Surfing the Basque Country, Zumaia Flysch Trail, Bilbao Exhibition Center... Bermeoko Arrain Azokak ez du *standby* egoeran geratu izan nahi, eta Euskal Herrian gainera kendu ezin dugun *marketing* probintziaren *crew*-ra batu da.

Urtero legez Bermeoko Arrain Azoka antolatuko dute maiatzaren 18tik 20ra. Berritasunen artean Bermeo Tuna World Capital izeneko proiektua sortu dute, Azti, Pie-EHU, Hazi eta Eroski buru. "Ohi-turek eta berrikuntzek bat egingo dute" 300 metro karratuko espazioan, adibidez, atunarekin lotutako ekimenen artean, Basque Culinary Centerrek *showcooking*-a eskainiko du BTWC-ko *stand*-ean.

Kostaldeko herrietan aurki ditza-kegun XXX (ipini nahi duzun arraina) egunen modukoa da. Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Baina aurten bestelako lustrea eman nahi izan diote. Horretarako, Munduan mintzo diren gainerako 6.000 hizkuntzek ez dauzkaten diridira, grazia eta modernotasuna erantsi

dizkiote ingelesari esker. Lehen kutsu probintzianoa zuen azoka beste maila batera igo dute. *Win-win* estrategia. Denok irabazle, antza. Hauek nire interpretazioak dira noski, izan ere azalpena, tamalez, askoz sinpleagoa izango baita.

Bilbon MTV edo errugbiarekin nola, ingelesak ingelesdunak ekarriko dituelakoan aritzen dira batzuk ingelesez, *Basque & pintxos* turismo ereduaren sukarrak jota. Baina beste batzuek, eta hau da tristeena, ingelesera jotzen dute nahiz eta jakin haien ekimenera hurbilduko direnak nagusiki euskal herritarrek izango direla. Ingelesa ez baita amu, statusa baizik. Munduko Atunaren Kapitala jartzea bilbokeria da. Tuna World Capital, aldiz, *cool*-a. Eta, bide batez, euskara eta gaztelania/frantsesaren "kuota" gainditzeko ez da trikimailu txarra, ezta?

Izena duen guztia ba omen denez, azkenaldian gure izanaren berrinterpretazio bete-betean gaude. Euskal Herrian egindakoari ingelesezko izendapena jartzeko joera gero eta hedatuago dago, ezker-eskuin, goiti-beheiti.

Bermeen bi "muturrak" elkartu dira. Arrain Azoka iragartzeko bideoa bermeoeraz egin dute osorik. Hori bai, batuan azpitoluak jarrita badaezpada. Halaxe dio pasarte batean: "Guk estakulako beste ezer, ezpada gure gauzek esateko erie". Bada, antza, hori ere ez zaigu geratzen. Saltzen, saltzen oso onak ei garelako herri honetan, txakur txiki baten, *you know*.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Elkartasunetik gutxi duen "ezkutu fiskala"



Juan Mari Arregi

EAJ eta PSEk, PPrent laguntzaz elkartasunetik gutxi duen zerga-babesa edo "ezkutu fiskala" berpiztu dute Gipuzkoako aberatsenentzat, eta aldi berean menpekotasuna saihesteko laguntzak murriztu dizkie 4.330 familiari. Halaxe da. Gipuzkoako Batzar Nagusiek lehen urratsa eman dute aurreko foru gobernu taldeak ezarritako Fortuna Handien eta Aberastasunaren gaineko zerga derogatzeko. Inposatu nahi duten zerga-ordainketarako sistema berriarren parte da neurri hori, eta patronalari mesede handia egingo dio, besteak beste lortu dutelako Sozietate zergako karga-tasa jaistea.

Erreforma fiskalaren memoriak baieztatu du 875 pertsonak gozatu-ko dutela "ezkutu fiskalaz" eta batez beste 38.000 euro gutxiago ekarri-ko dutela Gipuzkoako foru ogasunera. Datu odoltsu eta eskandaluzkoa: lurralde horretako 38 lagun aberatsenek -12,8 milioi eurotik gorako ondarea dutenak- 15 milioi euro aurreztuko dituzte, diru-kutxa publikora ekarri behar izan gabe. Ogasunak Gipuzkoako super-aberatsei 408.316 euro oparituko die batez beste urtero. Bitartean, menpekotasuna saihesteko laguntza behar duten 16.697 lagunek -4.330 familia-murrizketak jasan dituzte: urtean 300 eta 1.000 euro artean.

### Pribilegiatuen mesedetan

Gezurra da ez dagoela dirurik diru-kutxa publikorako eta ondorioz murrizketa sozialak egin behar direla; Gipuzkoan ikusten ari gara. Aipatu alderdi horiek, euren zerga politikekin pribilegiatu batzuk zerbitzatzen dituzte. Murrizketen kontrako manifestariek ez zaie arrazoirik falta "hau lapurreta da!" oihukatzen dutenean: "Ez da dirurik falta, lapurrak daude soberan".